

Lenago "nola zeruan ala lurrean" esan oi zan, eta geroztik "zeruan bezela lurrean ere" esaten dugu. Zergatik ez egin beste orrenbeste "Gure Aita" ... eta "barkatzen dizkiegun" -ekin ere? Guri asko barkatzea nai badugu, barka dezagun guk ere asko.

Fernando Mendizabal o.f.m.

.....

Batasun — ispicak

Euskeraren batasun billa gabiltza geienok. Muiñeko deitu genezaken batasun ori oiñarritzat euskalki bat artuz jaritxi nai dute. Eztago gaiski. Izan ere ori dugu bearrezkoen. Orrezaz gañera ba-da guziok dazagugun beste izkirakin-de auzi bat ere. Azkenaldi auetan euskal-idazleak ontan asko batu dirana ezin uka dezakegu.

Batu diran oem artean ostera ba-dira oraindik berezitasun koikor batzuk, izkirakindeari dagozkionak alegia. Gaurkoz bizpairuri buruz esan nai nuke zeozer.

I) Berezkatz (apóstrofo) eta itziriri (guión) buruz. Euskeraz idazten ari geranean, izen berekiak (propios) sarritan ezartzen zaizkien atzizkiekin naastu ezтитеzen marra batzuen bidez bereiztu oi ditugu. Ta emen dager batasun-ez ori. Batzuk berezkatzaz jartzen dute, adibidez Donosti'ko; beste batzuk berriz itziria: Donosti-ko.

Zer ote litzake obe? Nik itzirira joko nuke bereizketa oiek egiteko. Ona zergatik: ezagutzen ditudan beste izkera guzitan berezkatzaz bereziketarako ez-baña, dagon une artan, izki bat galdu dala adierazteko erabiltzen da. Zer dala-ta ez euskeraz ere, izki baten erortzea adierazteko bakkarrik alegia?

Eta onela jartzen astea elitzake arau berri bat sartzea izango, batzuk ba-darabilten zuzenago ori onartzea baiño. Donosti-ko idazti bearrean, Donosti-ko jarri.

II) Adizki baiurrigin (condicional) eta baibidezkoen (afirmativo) arteko idazkera- bereizketari buruz, ots, bada-tor =si viene, ta ba-dator=ya viene adizki bion artekoari buruz.

Adizki baiurrigina onela izkiriartzen dute zenbait-tek: ba-dator; baibidezkoa berriz, ba-dator geienak. Emen aspaldiko esakera zuur ura gogoratuko nuke nik: "Non sunt multiplicanda entia sine necessitate", "geiegikeriak alde batera utzi bear dirala, alegia".

Bi adizki auek bata bestetik bereizteko ez al dugu aski marra bietan jarri ordez bakarrean jartzea? Matematike-tan ere orrelaxe egiten da: asieran + danean, estago zertan jarri bearrik; besterik gabe + dala adierazten da.

Alaber egin genezake adizki biok idaztean ere: "si viene"esateko, badator idatzi, ba ori atono bezela estu-estu itsasten baitzaio aditzari; ta "ya viene" ortarako, ba-dator jarri. Ta orra bereiketa garbi eginda marra bakarraren bidez.

Gauza koxkorrak? Kaxkarkeriak? Norberak iritzi. Baiña ontan ere batu ezkerro, batasun oso ta adimen bidezkoetik urbillago.

A. Z. o.f.m.